



ALKOHOL GEHIEGIKERIAREN KONTRAKO UMOREZKO PEGATINA (2019)

Festetan alkohol gehiegi edatearen kontrako umorezko pegatinaren lehiaketa

Eibarko Udalaren Kultura eta Gizartekintza batzordeek alkohol gehiegikeriaren kontrako umorezko pegatina sortu nahi dute. Beraz, pegatina hori sortzeko deialdian parte hartu nahi baduzue, hona hemen bete beharreko oinarriak:

Gaia: alkohol gehiegi ez edatea; alkohola neurrian edatea komeni dela gogoratzea.

Idatzia: norberaren aukeran, euskaraz.

Neurriak: 7x7 zm, borobila, lauki itxurakoa...

Kolorea: nahi dena.

Pegatinak aurkezteko epea: 2019ko apirilaren 29tik maiatzaren 10era, 14:30ra arte.

Lanak aurkezteko formatua:

- euskarri gogor baten gainean 7 x 7 zmko proportzioarekin, edo
- formatu digitalizatu batean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin 7 x 7 zmko proportzioarekin).

Emailez ez da jasoko lanik.

Lehiaketan izena emateko eta pegatina aurkezteko bideak:

- **Elektronikoki:** www.eibar.eus. Pegatina eta NANA formatu digitalean erantsi beharko dira.
- **Presentzialki:** PEGORAn, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa. Pegatina formatu digitalean ala euskarri gogor baten gainean aurkeztu beharko da. NANA ere aurkeztu beharko da PEGORAn digitalizatu dezaten.

Pegatinak lema eduki behar du erantsita. Izena ematerako orduan (elektronikoki ala presentzialki PEGORAn), egileak ondorengo datuak erraztu beharko ditu:

- Pegatinaren lema.
- Egilearen izen-abizenak.
- Egilearen adina.
- Egilearen bizilekua.
- Egilearen telefonoa eta e-maila.

Saria 180 eurotako izango da.

Lehiaketan irabazlerik ez egotea ere gerta liteke.

Epai-mahaiak maiatzaren 17an emango du ezagutzera bere erabakia eta atzeraezina izango da. Epaimahaikideak nortzuk diren erabakia ematen den egunean jakinaraziko da.

Epaimahaiak, oinarri hauek irakurtzerakoan sor daitezkeen zalantzak bere kabuz irtenbideratzeko ahalmena du.

Pegatina saritua Udalaren esku geratuko da. Udalak, pegatina argitara emateko eskubidea bere gain hartzen du.

Saririk jaso ez duten originalak Kultura sailean har daitezke hurrengo 30 egunen barruan.

Lehiaketan pegatina originalak aurkezten dituenak, oinarri hauek diotena ontzat ematen du.